

Las viviendas unifamiliares presentan habitualmente consumos de agua más elevados que los que se observan en el conjunto de la ciudad.

Algunas características propias de este tipo de viviendas conllevan necesidades de agua que justifican, hasta cierto punto, estos altos consumos:

Necesidad de riego, tanto mayor cuanto mayor sea la superficie de zona verde asociada. En muchas ocasiones, además, se trata de zonas con césped, que requiere mayores aportes de agua.

Mayores superficies de vivienda, que se asocian con mayores consumos, especialmente en tareas de limpieza.

Riesgo más elevado de padecer problemas en la instalación interior de agua en forma de fugas, por tratarse de instalaciones más complejas y por la existencia de más puntos de consumo. **Especialmente crítico es el mantenimiento de la red de riego**, más propensa a sufrir daños por heladas o roturas de tubería causantes de fugas que, en muchas ocasiones, pasan desapercibidas.

Existencia de presiones más elevadas que en la mayoría de pisos en edificación colectiva, sobre todo en la zona norte de la ciudad. Supone que, bajo presiones altas, en plantas bajas y primeras plantas puedan darse caudales excesivos en puntos de consumo y griferías.

Aparición habitual de prácticas o usos en la vivienda que conllevan consumos importantes: disponibilidad de piscina permanente en algunos casos, instalación de piscinas hinchables en verano, lavado de vehículos, limpiezas de patios o porches, etc.

Para evitar consumos desproporcionados, y considerando los factores anteriores, las personas propietarias y/o residentes en una vivienda unifamiliar pueden ajustar su consumo de agua a valores mínimos sin mucho esfuerzo y sin comprometer la calidad de servicio, siguiendo estas recomendaciones:

En el riego: comprobar la estanqueidad del sistema, regar de acuerdo con las previsiones meteorológicas a primera o última hora del día, y valorar la incorporación de sistemas de riego eficiente por microaspersión o goteo.

También existen en el mercado sistemas modulares de aprovechamiento de aguas pluviales o de aguas grises que se pueden utilizar para el riego de zonas verdes.

En el diseño del jardín se pueden potenciar las especies autóctonas y de bajo consumo, así como la creación de zonas en sombra.

El consumo medio adecuado para el riego del césped en una ciudad con las características climáticas de Vitoria-Gasteiz es 2-3 litros/m² y día de riego. Lo habitual es que el riego se prolongue durante 90-100 días entre los meses de junio y septiembre.

Revisar periódicamente que la instalación general no presenta fugas realizando lecturas del contador en ausencia de consumo, por ejemplo al acostarse por la noche y a primera hora de la mañana. Si las lecturas difieren, existirá algún tipo de fuga. Tenga en cuenta que la detección y reparación temprana de cualquier pérdida de agua reduce los posibles daños por humedades, y que las facturaciones trimestrales de AMVISA no permiten una detección inmediata de los problemas.

Recuerde que la reparación de fugas en instalaciones interiores de agua corresponde a la persona propietaria de la vivienda.

Regular, si es necesario, la presión de agua en los puntos de consumo. En la mayoría de ocasiones basta con ajustar la llave de paso de las griferías. Si la presión fuera muy elevada puede instalarse una válvula reguladora después de la acometida.

Si se dispone de piscina, realizar un mantenimiento adecuado de la instalación. Ajuste los consumos del agua de renovación al mínimo que marca la normativa. Cubrirla cuando no está en uso contribuye a mantenerla limpia y evita la evaporación.

Adoptar prácticas y hábitos generales de consumo eficiente:

Instalar dispositivos ahorradores de agua y sustituir las griferías e inodoros antiguos por otros de bajo consumo cuando se acometa una reforma.

Descartar el lavado manual de vehículos con manguera; la opción más eficiente es acudir a un autolavado.

Evitar las limpiezas por arrastre con agua en zonas exteriores.

Corregir las actitudes no eficientes más habituales en el hogar: hay que prescindir de la bañera, reducir el tiempo de ducha, no utilizar el inodoro como una papelera, emplear los electrodomésticos a carga completa y no dejar correr el agua del grifo sin necesidad.

Para ampliar esta información puede consultar los materiales disponibles en la página web www.amvisa.org (sección Comunicación/Documentación y materiales).

Puede ponerse en contacto con el Plan Futura para cualquier cuestión relacionada con su consumo de agua, así como para la adopción de mejoras y buenas prácticas.

945 011470 - info@amvisa-futura.org

Ur kontsumoa familia bakarreko etxeetan

Jarduteko gida



futura
plan plana

Vitoria-Gasteizen Uraren Erabilera
Arrazionala Sustatzea
Fomento de la Utilización Racional
del Agua en Vitoria-Gasteiz



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.

Familia bakarreko etxeek ur kontsumo handiagoak aurkeztu ohi dituzte hirian oro har ikusten direnak baino.

Horrelako etxeen berezko ezaugarriek, nolabait, justifikatzen dute kontsumo altu hori eragiten duten beharrak egotea:

Ureztatzeko beharra, zeina atxikitako berdegunearen azaleraren arabera handitzen den. Askotan, gainera, belarra egoten da, eta horrek ur ekarpen handiagoa eskatzen du.

Etxebizitzaren azalera handiagoa, eta, ondorioz, kontsumo handiagoak, batez ere garbitzeko zereginetan.

Barruko ur instalazioan arazoak egoteko arrisku handiagoa ihesen ondorioz, instalazioak konplexuagoak direlako eta kontsumo puntu gehiago egoten delako. **Bereziki garrantzitsua da ureztatzeko sarea mantentzea**, izotzak errazago kaltetu dezakeenez edo hodiak apurtu daitezkeenez, ihesak gertatzen direlako, eta horiek askotan oharkabean pasatzen dira.

Presio handiagoak egoten dira eraikuntza kolektiboko etxe gehienetan baino, batez ere hiriko iparraldean. Ondorioz, behe eta lehen solairuetan presio altuak badaude, gerta daiteke ur emaria gehiegizkoa izatea kontsumo puntuetan eta txorrotetan.

Etxean kontsumo handiak eragiten dituzten ohiko praktika edo erabilerak egotea: batzuetan igerilekua egoten da etengabe erabiltzeko moduan, udan igerileku puzgarri instalatzea, ibilgailuak garbitzea, patioak eta ataurreak garbitzea, etab.

Neurrigabeko kontsumoak saihesteko, aurreko faktoreak kontuan hartuta, familia bakarreko etxeen jabeek edo bertan bizi direnek ur kontsumoa doitu dezakete, balio minimoetara eramateko, ahalegin handirik egin gabe eta zerbitzuaren kalitatea konprometitu gabe, honako gomendio hauei jarraituz:

Ureztatzeko: egiaztatu sistemaren estankotasuna, ureztatu iragarpen meteorologikoen arabera egunaren hasieran edo amaieran, eta baloratu ureztapen sistema efizienteak gehitzeko aukera, mikroaspertsio edo tantakako ureztapenarekin.

Halaber, merkatuan euri urak eta ur grisak aprobetxatzeko sistema modularrak daude, berdeguneak ureztatzeko erabiltzeko.

Lorategiaren diseinuan espezie autoktonoak eta kontsumo txikikoak bultzatu daitezke, eta gune itzaltsuak sortu.

Vitoria-Gasteizko ezaugarri klimatikoak dituen hiri batean, belarra ureztatzeko batez besteko kontsumo egokia 2-3 litro/m² da, ureztatzen den egun bakoitzeko. Ohikoena da ureztapen egunak 90-100 izatea ekainetik irailera.

Aldizka, zaindu instalazio orokorrean ez dagoela ihesik, kontsumorik ez dagoenean kontagailua irakurriz, adibidez, gauean lotara joandakoan eta goizeko lehen orduan. Irakurketan aldea badago, ihesen bat dagoela seinale. Kontuan hartu, ur ihesak azkar detektatu eta konpontzen badira, hezetasunak eragindako kalteak murriztuko direla, eta AMVISAren hiru hilekoko fakturazioek ez dutela aukerarik ematen arazoak berehala hautemateko.

Gogoan izan barruko ur instalazioen ihesak konpontzea etxearen jabeari dagokiola.

Beharrezkoa bada, erregulatu uraren presioa kontsumo puntuetan. Gehienetan, nahikoa izango da txorroten emaria ixteko giltza doitzea. Presioa oso altua bada, erregulatzeko balbula bat instalatu daiteke hartunearen ondoren.

Igerilekua badago, egin instalazioa mantentzeko lan egokia. Egokitu ura berritzeko kontsumoak araudiak ezartzen duen minimora. Erabiltzen ez den bitartean, estali: garbi mantentzen laguntzen du eta lurruntzea saihesten du.

Kontsumo efizienteko praktikak eta ohiturak hartu:

Jarri ura aurrezteko gailuak eta, erreforma bat egiten baduzu, ordeztu txorrota eta komun zaharrak kontsumo txikiko batzuekin.

Ez garbitu ibilgailuak eskuz mahukarekin; aukerarik efizienteena autoak garbitzeko instalazio batera joatea da.

Saiatu kanpoaldeak ez garbitzen uraren bidez arrastatuz.

Zuzendu efizienteak ez diren etxeko ohiturak: ez erabili bainuontzia, laburtu dutxaren denbora, ez erabili komuna zakarrontzi moduan, erabili etxetresna elektrikoak guztiz beteta daudenean eta ez utzi korritzen iturriko ura beharrik gabe.

Informazio hau zabaltzeko, webgunean dauden materialak kontsulta ditzakezu www.amvisa.org (Komunikazioa/Dokumentazioa eta materialak atalean).

Zure ur kontsumoari lotutako edozein informaziotarako, eta praktika onak eta hobeak lortzeko, jarri harremanetan Futura Planarekin.
945 011470 - info@amvisa-futura.org

Consumo de agua en viviendas unifamiliares

Guía de actuación

futura
plan plano

Vitoria-Gasteizen Uraren Erabilera
Arrazionala Sustatzea
Fomento de la Utilización Racional
del Agua en Vitoria-Gasteiz



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.